
TXANGO ATSEGINA[~]

DEBA ATA MARKINA

Martiaren 26an. Zapatua, Debara joateko eguna. Jain dagizun, gu Euskerazaleok ara joan oi gara. Ez dakit noiz sortua dan batasun au, baiña urteak dira eta illero-illero goaz ara, euskerearen alde lan egitera, bazarra, estaibadak, erabagiak, akatsak aztertu, eta abar egin ondoren bazkaria euki oi dogu, eta gero etxerantz, Gu Mutriku, Ondarru Markiña'tik zear etxera.

AURRERA

Oraingoan, bidez geunkala-ta, Amoroto'ra joateko asmoa artu genduan. Eta Lekeitiorako bidean, Armiña baño lenago, Atxurra-gaiñean itxi Lekeitiorako bidea eta Ballestegirakoa artu genduan, ni umetan sarri ibilia.

Ementxe artu oi genduan guk geure baserrira igoteko zear bidea.

Aurreratxo joan eta or genduan Beko Errota be: orraxe ekarten genduan guk artoa nai garia uruna egiteko.

Aurreratxoago joanik, or genduzan iru etxe, Ballestei ibilbide onen asiera, Ikan errota lenengo, Ikan ezker eta abar.

Lenengoa eun eta ainbeste urtekoa, erre egin zan askenengo suetean; baiña bertan bizi diranak, oso jatorrak, dirua ondoen eralgita nobere bizitza barriztuten egoala-ta, barriri barriztu egin dabe oso ederto; zaararak eta gazteak bizi dira bertan guztiz jator eta bizi naitu. Emetik gora joi dogu, Txopitte, Atxuriarte eta inguruarteko onetako biztanleok.

TONTORRERA

Guk ezkerretik artu gendun, Bellestei zear, erreka ez erreka; emendik ez urrin, oraintsu egindako zarama tokia aurkitu genduan, polito eta ganoraz egiña; eta gu aurrera erreka ta baserri ondolik; emendik joaten giñan gu Santa Eufemira eta beste toki entzutetsuetara eta ermitako jai audietara.

Lenago toki onetan zear joatea, nai ta ezker-eskuma etxeak egon eta piñu-tantaiz josita, etzan errez andik ibiltea. Gaur garbi dagoz toki oneik; suetea izan zaneetik garbi dago guzti au; etxeak be Enpan Goikoa eta Bekoa or ziran len, gaur... Gu beintzat, ba-giñoiazan aurrera, eta gorantza igonaz oraintsu egindako bede zalez tontorrerantza eldu giñan.

AMOROTO'RA

Emendik bide bi, bata Gizaburuaga'ra eta bestea Amoroto'ra. Beerantza artu genduan, baiña zatitxo baten ibili ta gero atzera jo genduan, guk Amoroto'ra jua naia gendulako eta ez Gizaburuaga.

Gora jo gura gendun eta Amorotorako bidea artu gendun.

Ainbat etxe, eta azken-Arretxika, Santa Barbara ermitapean gengozan, eta nik esan neutson txoferrari jo ezkumatik, orra gora igon bear dogu, Santa Barbarari agur egitera eta an giñan beingoan. Toki zoragarria ur tokia eta santa Barbararen eleizatxo.

IKUSPEGI EDERRA

An ordu erdi bat egin genduan, ikusmiraz eta ikusmiraz. Zelako toki ederrak dagozan gure errian ! azpian ur-ur Amoroto erria, etxez bete betea zuriz ta dotore, urrutik Lekeitio ta kantauri itxasoa dizditsu ta bizi!, Amoroto-bean eleizea guk bateoa artu genduna eta gaztetan ainbeste otoitz egin genduna.

Oraindiño-be larogeta bost urte ditut, ara noanean, beti joatenaz eleizara, jaunari otoitz egitera.

San Martin, bertako zaindaria, nirentzat Santu aundia da, mirari egille aundia, bertako jentea ondo zaintzen dakiana. Eta bertakoak Santa goratu, ta gurtzen dabenak.

Nik eta besteak beste ainbeste egiñik, pozez etxeratu giñan.

AITA ONAINDIA